



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

EGIAZTETZEN DU

Onomastika batzordeak Iruñean egindako azkeneko bilkuarn beste gai batzuen artean markina-Xemeingo udalak *Ziortza-Bolibar* edo *Zenarruza-Bolibar* izenen egokitasunari buruzko eskaera aztertu zuela.

Ziortza / Cenarruza izenaz Patxi Salaberri Zaratiegi egindako txostena (ikus ondoko eraskina) ikusita auzo hori izendatzeko lehenago hartutako erabakia, hots **Ziortza** berrestea erabaki zen aho batez.

Halaber, **Bolibar** izena ere berretsi zen.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon bi milagarreneko maiatzaren 25ean.

Mikel Gorrotxategi Nieto
batzorde idazkaria

Ziortza / Cenarruza aldaeren inguruan

Izen honen lehen lekukotasuna, Mitxelenak (1997 [1953], 612) eta A. Irigoienek (1972: 210 eta 1975: 86) diotenez, 1082. urtekoa da, Donemiliagako kartulariokoa (Ubieto, 1976: 48). Izan ere, agiria baiesten duten lekukoen artean *abbate domno Blasco de Cinauriza* azaltzen baita¹. Aurrerago beste aldaera batzuk ere aurkitzen ditugu; hurrengo hauek hain zuzen ere:

Çenaurriça: *“Santa Maria de Çenaurriça”, “los dichos deviseros del dicho lugar de Çenaurriça”, “del dicho lugar e abbadia de Çenaurriça”* (1379, FDMPV-10, 2, 10. or.); *“...a Ruy Martines de Çenaurriça e a Martin Martines de Çenaurriça, hermanos hijos de Martin Ruis de çenaurriça”, “...salvo el abbad de Çenaurriça* (1379, FDMPV-10, 2, 12. or.), *“nos don Peydro por la gracia de Dios abad de la iglesia de Sancta maria de Çenaurriça”* (1384, FDMPV-10, 5, 24. or.), *“...abbad e clerigos de la abbadia de Sancta Maria de Çenaurriça”* (1387, FDMPV-10, 8, 34. or.); *“...si bien es tradición de haber sido hallada entre unas matas de yezgos, llamados vulgarmente ciorrijac, originandose de ello el nombre de Ciorriza, Cenaurriza y últimamente Cenarruza; pero acerca de la etimología de este nombre como más cierta y probable, ya se dijo al número 501 (...)”* (Iturrizta, XVIII. mendearen bukaera aldean, lehenengo liburua, 266. or.).

Cenaurriçabeytia: *“Pero Ona de Cenaurriçabeytia”* (1387, FDMPV-10, 8, 35-36. orr.)

Çenahaurriça: *“Pero Peres d’Alvis abbas del monesterio de Santa Maria de Çenahaurriça”* (1400, FDMPV-10, 17, 70. or.)

Çynarruça: *“...en el monesterio e yglesia colegial de Sennora Santa Marya de Çynarruça”* (1507-1510, FDMPV-24, 9, 27. or.)

Çenarruça: *“...era solar e caseria labraderego del dicho lugar de Çenarruça”* (1379, FDMPV-10, 2, 10. or.), *“Pero Sanchez de Unda clerigo de abadia de Santa Maria de Çenarruça”* (1386, FDMPV-10, 7, 32. or.), *“seles de Çenarruça”* (1398, FDMPV-10, 11, 45. or.); *“Pero Lopez de Ybaseta, canonigo del dicho monesterio de Çenarruça”* (1507-1510, FDMPV-24, 1, 3. or.); *“En las casas de Juan de Çenarruça bibe el mismo”* (Gerrikaitz, 1511, FDMPV-78, 172. or.)

Zenarruza: *“...la yglesia parroquial de Santa Maria de Zenarruza”* (1380, FDMPV-10, 3, 14. or.), *“la dicha abadia de Zenarruza”* (1398, FDMPV-10, 11, 50. or.)

Cenarruca: *“Donno la dicha Catalina monja al mortuorio de Hurrechagaveytia a la yglesia de Cenaruca”* (1400-1411, FDMPV-10, 15, 63. or.)

Zenarruza la de jusso: *“...en la caseria de la dicha yglessia alla do esta fundada entre el monte de Umbee e Zenarruza la de jusso”* (1380, FDMPV-10, 3, 18. or.)

Cenarruçabeitia: *“Pero Ona de Cenarruçabeytia e Pero de Cenarruçabeitia”* (1386, FDMPV-10, 7, 32. or.), *“Juan abad de Cenarruçaveitia”* (1502, FDMPV-10, 55, 233. or.)

¹ - Etzana eta kolorea gureak dira.

Çenarruçaveytia: “...era notorio quel era fijo legitimo de la casa de Çenarruçaveytia” (1507-1510, *FDMPV-24*, 2, 8. or.)

Cenaurruza: “Santa Marya de Çenaurruça” (1398, *FDMPV-10*, 11, 46. or.)

Cenarruyça: “Rui Martines de Çenarruyça” (1398, *FDMPV-10*, 11, 46. or.)

Çenuarraça, Çenvarraça: “en el monesterio e yglesia colegial e perrochial de Sennora Santa Maria de Çenvarraça”, “...la dicha yglesia de Santa Maria de Çenuarraça” (1507-1510, *FDMPV-24*, 6, 18. or.)

Cenarraz: “donde son las dichas yglesia e casa de Çenarraça e Otaola” (1507-1510, *FDMPV-24*, 6, 18. or.)

Çeraurritz: “Martyn Martines de Çeraurritzta morador en Olanbe” (1398, *FDMPV-10*, 11, 48. or.), “...e do dezia Çeraurritzta” (1398, *FDMPV-10*, 11, 48. or.)

Ciaurruizta: “Martin Martinez de Zenarruza é Martin Martinez de Ciaurruizta” (1398, *FDMPV-10*, 11, 51. or.)

Çumarraçabeytia: “En las casas de Juan de Çumarraçabeytia bibel el mismo” (Gerrikaitz, 1511, *FDMPV-78*, 172. or.)

Ceurica. Irigoienek (1972: 211) abadiako armarriko “orla” delakoan *Ceurica* idatzirik dagoela dio, zein **Ceurriça** irakurri behar baita.

Ciorriza: “...si bien es tradición de haber sido hallada entre unas matas de yezgos, llamados vulgarmente ciorrijac, originandose de ello el nombre de Ciorriza, Cenaurriza y últimamente Cenarruza; pero acerca de la etimología de este nombre como más cierta y probable, ya se dijo al número 501 (...)” (Iturritza, lehen liburua, 266. or.)

Cearrotza: Irigoienek (1972: 211) dioenez, J. J. Mugartegik biltzen du 1930eko bere liburuan.

Ziarrotza: Irigoienek berak (1972: 211) **Ziarrotza** aldaera bildu zuen Aulestian; **Ziurritza**, **Zigortza** eta **Ziorrotza** ere bildu zituen, **Ziortza**-z landa (ibid., 214). Juan San Martin euskaltzainak jakinarazi digunez, bere sorterrian, Eibarren, **Ziarrotza** esaten dute.

Ikusten denez, Mitxelenak eta Irigoienek esan moduan, mintzagai hartu dugun izenaren jatorria 1082ko **Cinaurritza** da, eta hemendik atera dira, bi tradizioen arabera, **euskarazko aldaerak** batetik eta **erdarazkoak** bestetik.

Euskarazkoak aise ezagut daitezke, denek gure hizkuntzan ohikoa den bokal arteko **-n-** sudurkari «biguna»-ren erortzea aurkezten dutelako. Multzo honetan lekukotasun hauek sartu behar dira: **Ciaurruizta** (1398), **Ceurica** —zein Irigoienek arabera **Ceurriça** irakurri behar baita, hots, **Zeaurritza**—, **Ciorriza** (Iturritza, 1793an), hau da, **Ziorritza**, eta Irigoienek, Lizundiak² eta

² - Ahozko adierazpena. Euskaltzaindiaren kudeatzaile eta idazkariordearen andrea Garaikoa da. Bertan, esaten digunez *Siárrotza* erabiltzen dute gaztelaniaz *Cenarruza* deitzen dena izendatzeko.

Juan San Martinek Bizkaian eta Eibarren bildutako aldaerak: **Zearrotza**, **Ziarrotza**, **Ziortza**, **Ziorrotza**, **Ziurritza** eta **Zigortza**. Aurki ikusiko dugu zein den aldaera bakoitzaren jatorria. Sudurkariaren ordainetan dardarkaria (**-r-**) duen aldaera —**Çeraurritzta**— ez dakigu zein multzotan sailkatu behar dugun.

Erdarazko aldaeretan beste guztiak sartu behar dira, hots, bokal arteko sudurkaria galdu ez dutenak, jatorria, bistan denez, euskaran badute ere: **Çenaurriça**, **Cenaurriçabeytia**, **Çenahaurriça**, **Çynarruça**, **Çenarruça**, **Cenarruca** edo **Zenarruza**, **Cenarruçabeitia** edo **Çenarruçaveytia**, **Cenaurruza**, **Cenarruyça**, **Çenuarraça**, **Çenvarraça** eta **Cenarraza**. 1511ko **Çumarraçabeytia**, irudi duenez, aurreko aldaeretako baten itxuratxartzearen ondorena da.

Beraz, bi tradizio desberdin ditugu, beste toponimo anitzetan bezala (cf. **Aramayona / Aramaio**, **Ochandiano / Otxandio**, **Lazcano / Lazkao**, **Torrano / Dorrao**, **San Sebastián / Donostia**..., eta beste hamaika horrelako): bokal arteko **-n-** atxikitzen duena lehenik (erdarazkoa) eta soinu hori galtzen duena (euskarazkoa) bigarrenik. Dokumentazioan, ikus daitekeen gisan, **-n-**dunak dira lehen eta maizen agertzen direnak, baina honek gure ustean ez du esan nahi euskarazkoa —1398. urtekoa da lehen lekukoa— erdarazkoaren ondokoa, beranduagokoa denik, kontuan hartu behar baita agiri ofizial guzti-guztiak erdaraz idatzirik daudela eta honek, bistan denez, ez duela inola ere bultzatzen euskarazko aldaera azaltzea. Hau, gainera, forma herrikoitzat hartzen zatekeen, alegia, agiri ofizial batean azaltzeko behar bezalako mailarik ez zuen formatzat.

Denen jatorria, ikusi dugunez, 1082ko **Cinaurritzta** da eta honen osagaiak ***zinaurri** landare izena eta **-tza** toki ugaritasunezko atzizkia³. ***Zinaurri** horretatik ateratako **Ziaurre**, **ziaurdi**, **ziorri** 'yezgo' da nafarreraz eta bizkaieraz (euskalki honetan gutxienez XVIII. mendearen bukaeran), Azkuek (**DVEF**) eta

³ - J. Garatek (1983: 460) proposatzen duen etimologiak ez du funts handirik. Honela dio autore honek:

"A propósito, el *zen* vasco es resto de *ezen* y como se ve en Ezen-arro y Cenarr-uza quieren decir barranco. *Uza* sería vado pero como sucede a veces, subió del río Artibay el nombre, hasta el monasterio, pues las cimas no están pobladas a menudo y el nombre de la casa o accidente situado en el valle asciende hasta las cumbres".

Mitxelenak (AV, 612) diotenez. Lekeitiarrak, gainera, **ziraurre** 'ezkanda, gari mota bat' jasotzen du Arakilen, Nafarroan, eta errenteriarak, Bähr eta Arantzadiri jarraikiz, **ziaurre** Zegaman zuhaixka baten izena dela dio eta **ziñurri beltz** eta **ziñurri zuri** Ataunen beste birenak. Hortaz, leku izenaren hastapeneko adiera 'ziaurre landarea ugari zegoen tokia' zen, ziaurretzat zer ere hartu behar baitugu. Antzeko toponimoak dira Nafarroako bi herriren izenak, hots, **Ziaurriz** (Odietan) eta **Ziordia** (Burundan). Lehenean aipatu landare izena eta toki ugaritasunezko **-tz(e)** atzizkia ditugu eta bigarrenean, antza denez (AV, 613), landare izen hori bera —zein oraingoan beharbada 'ezkanda'-tzat har bailiteke (cf. Agorretako **Ezkandatzea** toponimoa, **Ezcandacea** idatzia, Uharteko pr., 41, 1643), Ziordia Arakildik hurbil dagoelako— eta **-di** multzokari eta lekuzkoa.


Irigoienek (1972: 211) bi tradizio zeudela zioen: bata **Cinaurriza**-tik abiatu zen eta bestea **Cenarruça**-tik. Aurrenekoa honela azaltzen du: **Cinaurriza > *Zihaurritza > *Zihorritza > Zigortza, Ziortza. Ziurritza** ere hemendik aterako zen, **-au-** diptongoa monoptongatu eta **-u-** bihurtu ondoren. Bigarrenetik, **Çenarruça**-tik, **Cearrotza, Ziarrotza** eta **Ziorrotza** atera ziren Bizkaiko euskaltzain zenaren arabera.

Mitxelenak (1998 [1956]: 558) ez du zehazten aipatzen duen **Ziortza** aldaera **Cenarruza** ofizialetik edo lehen agerraldiko **Cinaurriza** historikotik ote datorren, baina bai azentua euskaraz zenbait izenetan bigarren silaban eror zitekeela, eta ondoko silaba galarazteko bezain indartsua izan zitekeela: **Amikuze / Mixe, Eaurta / Jaurieta, Mendikota / Menditte, Sarrikota / Charritte, Ziortza / Cenarruza, Cinaurriza**. Hortaz, **Zináurritza** edo **Zenárutza** ebakitzen zatekeen garai batean euskaraz, egungo lekuko biziek frogatzen duten moduan.

Gure irudiz, ditugun lekukoak ditugularik, ezin da bi tradizio daudela esan, gauzak, ikusiko dugun bezala, konplikatuagoak baitira. Irigoienek **Zigortza** lortzeko ***Zihaurritza > *Zihorritza** proposatzen du, hots, aspiraziodun aldaera, ezaguna baita hasperenketak, zenbait hizkeratan beregainki, aztarnatzat [©]


utzi duela, eta apika hau horrela izanen da, baina [©] hori *Eançi > Igantzi, oliyua*
> *oligua*-ren modukoetan dugunaren pareko ere izan daiteke, hots, hiatoa
indartzeko, markatzeko sortutako soinua izan daiteke.

Hurrengo grafikoetan aipatu ditugun aldaera dokumentatuak ematen ditugu, baina gure irudiz garai batean ebakitzen ziren moduan, datu historiko horiek berak eta oraingo aldaera biziak oinarritzat harturik. Zenbaitetan ustezko, alegiazko aldaerak ere ematen ditugu, gaurko forma biziak azaltze aldera, baina beti izartxoaz horniturik, ohi den bezala. Koloreak orain arte erabilitakoen segida dira gehienbat. Hona hemen, beraz:



Grafikoaren zatikako azalpena


Erdarazko bilakaera⁴:



⁴ - Izenaren etorkia euskarazkoa da, dudarik gabe, baina garai batetik aitzina bilakaera erdararen arauen arabera izan zuen. Hurrengo grafikoekin alderatuz gero honetan koadroen artean marrarik ez dela ikusten da, bokal arteko sudurkaria (-n-) ez baitzen galdu. Gaztelaniaren ereduari egokitzeko azentua aurrera joan zela pentsatu beharra dago.


Euskarazko bilakaerak: A.

Irigoienek proposatzen duena⁵.




⁵ - Esan dugunez euskaltzain bizkaitarraren arabera galdutako sudurkariak aspirazioa utzi zuen aztarnatzat, zein gero **-g-** bilakatu baitzen, eta beranduago galdu.

Euskarazko bilakaerak: B⁶.




⁶ - Hemen lehen koadrotik bigarrenera igarotzeko asimilazioa burutu zela pentsatu behar da. Bigarrenetik hirugarrenerako pausoa ez da azaltzen erraza, baina *-i-*ren irekitzea eta metatesia ikusi beharko ditugu. Hurrengoan monoptongatzea dago eta behin bokal arteko sudurkaria eroriz gero euskaraz ezagunak diren *-ea-* > *-ia-*, bokal asimilazioa, azentu ondoko bokalaren erortzea eta *[j]*-en kontrako *[g]* dituzkegu.

Euskarazko bilakaerak: C⁷.




⁷ - Lehen koadrotik bigarrenera pasatzeko bokal asimilazioa burutu dela pentsatu behar da. Gero lehen bokalaren irekitzea dagoke —ez dakigu ongi zergatik, normalena alderantzizkoa baita— eta monoptongatzea (cf. *arraultze* > *arroltze*). Hurrengo urratsa sudurkariaren galtzea da. Bestiak —eo- > -io- hersketa, bokal asimilazioa, azentu ondoko bokalaren lekutzea eta [j]-en aurkako [g] dirateke.

Euskarazko bilakaerak: D⁸.




⁸ - Honetan ez dago deus aitzinekoetan ikusi ez dugunik.

Euskarazko bilakaerak: E⁹.



⁹ - Hemen ez dago deus berririk.

Euskarazko bilakaerak: F¹⁰.



¹⁰ - Hemen *-au-* > *-u-* monoptongatzea dagoke (cf. *arraultze* > *arrultze*) eta sudurkariaren galtzapena.

Ondorioak

Bukatzeko garbi utzi nahi dugu mintzagai hartu dugun izenaren euskarazko aldaera *Zenarruza* edo *Zenarrutza* ezin izan daitekeela, honek euskaraz orokorra eta zaharra izan den bokal arteko sudurkariaren galtzea jasan ez duelako, agerian denez. Beraz, euskarazko izentzat gure grafikoetan gorritz agertzen direnetako bat aukeratu beharko da, alegia, gaur egun inguruetan bizirik dauden aldaeretako bat. Azken urteetan euskarazko formatzat *Ziortza* erabili izan da, eta orain toponimoa ez ezik antroponimoa —neska izena— ere bada, eta hortaz, urte dugu egokiena aldaera horri eustea dela¹¹.

Patxi Salaberry Zaratiegi

Onomastika batzordea – NUP

Iruñea, 2001eko maiatzaren 17an

¹¹ - Gerok beste lan batean (1999: 108-109) *Ziortza* formaren kontra hitz egin, izenaren bilakaeraren berri jakin gabez, baina orain uste dugu aldaera egokia dela izen araututzat erabil dadin.

Bibliografia eta laburdurak

AV: ikus Mitxelena (1997 [1953]).

Azkue, R. M. (1969 [1905-1906]): *Diccionario Vasco-Español-Francés (DVEF)*,
La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

DVEF: ikus Azkue (1969 [1905-1906]).

Enríquez, J. & Sarriegi, M^a J. (1986): *La Colegiata de Santa María de Cenarruza 1353-1515*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 10, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

_____ (1989): *Colección Documental de Santa María de Cenarruza. El Pleito de Otaola (1507-1510)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 24, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez et al. (1997): *Foguera-vecindario de las Villas de Vizcaya de 1511*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 78, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Garate, J. (1983): "La toponimia euskariana y el origen de los vascos", *Estudios en Homenaje a Don Claudio Sánchez Albornoz en sus 90 años I. Cuadernos de Historia de España*, Instituto de Historia de España, Buenos Aires, 447-472.

FDMPV-10: ikus Enríquez & Sarriegi (1986).

FDMPV-24: ikus Enríquez & Sarriegi (1989).

FDMPV-78: ikus Enríquez et al. (1997).

Irigoién, A. (1972): "Formas de nombres de localidades vizcainas", *FLV* 11, 207-218.

_____ (1975): *La Colegiata de cenarruza y sus seles*, RSVAP & Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, 1975. 1994an hiri berean argitarara emandako *Studia Anthroponymica et Toponymica*-n ere biltzen da lan hau.

_____ (1987): "Algunas cuestiones relacionadas con la [j] en lengua vasca", *De Re Philologica Linguae Vasconicae II*, Bilbo, 1-38.

Iturriza, J. R. (1967 [1812]): *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Ediciones de la librería Arturo, Fuentes para la Historia de Vizcaya, Bilbo.

Mitxelena, K. (1988 [1956]): "Introducción fonética a la onomástica vasca", aurrena *Emerita*, XXIV, 167-186-n karrikaratua. Orain urte batzuk *Sobre*

Historia de la Lengua Vasca-n ikusi zuen berriz argia (J. Lakarrak argitaratua, Maria Teresa Etxenikeren eta Blanka Urgellen laguntzarekin), «*Julio Urkixo*» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak 10, Donostia, 555-580.

____ (1990 [1961]): *Fonética Histórica Vasca*, «*Julio Urkixo*» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitalpena.

____ (1997 [1953]): *Apellidos Vascos*, Txertoa, Donostia, 5. argitalpena.

Salaberri, P. (1999): “Toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak mintzagai”, *Huarte de San Juan* 4, 101-122.

Ubieto, A. (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Anubar, Valentzia.